

## **Balorezko proposamena:**

Talde inklusiboetan bidaiatzeko eta Espainiako toki ezberdinetako kultura ezagutzeko tour irisgarriak antolatzen ditugu. Tour bakoitzak 15 eguneko iraupena du eta autobusean bidaiatuko da. Eskaintza urte guztian zehar egingo da eta Espainiako hiriak bisitatu, herrietako kulturak aztertu eta tokian-tokiko ohiturak ezagutu eta bertako giroan murgiltzea dugu helburu. Askotan, gertuko kultura eta inguruko erkidegoen izatea ezagutu gabe urrutira bidaiatzen dugula konturatu gara. Gure proiektuan, Espainako herrialde ezberdinetako bizimoduak eta kultur ikurrak ikustarazi nahi ditugu, anitzak bait dira. Bisitatuko ditugun inguruak anitzak diren eanean, tourrean parte hartuko duten bezero taldeak ere anitzak izatea nahi dugu. Izan ere, inklusibitatea tratatzea da gure asmoa, hau da, ez-gaitasunen bat duten pertsonak, gudetako beteranoak, kolektibo ezberdinetako pertsonak, edozein erlijio zein arrazako pertsonak onartuak eta taldearen parte sentiaraztea bilatzen dugu. Laburbilduz, beste tokiko kulturak ezagutu, konpartitu eta aztertu nahian dabilen edonor ongi etorria izango da gure bidaietan, baita ere, errealitate ezberdina bizi duten pertsonen egunerokotasuna ezagutu nahi dutenak ere. Izan ere, beste kultura ezberdinak ezagutzeaz gain, tour honek baldintza edo ezaugarri bereziak dituzten pertsonen, elkarbizitzeko aukera emango die.

Guzti honez gain, gure zerbitzuaren indar puntu nagusi bat, parte hartzaileekin batera, bidaiari itzultzaile eta hezitzaileak egongo direla da. Hizkuntza mugak edo beste motatatako ez-gaitasunak dituzten pertsonentzako, laguntzaileak prest egongo dira beti.

Guztira 94 pertsonak parte hartuko dute, gure bidaiari. Pertsona horiek, bi autobusetan banatuko ditugu, berrogeita zazpi eta beste berrogeita zazpi. Plaza horietatik, bi "PMR" izango dira, hau da, mugikortasun urriko pertsonak. Autobusak arrapala elektriko jasotzailea izango du.

Bidaiak pertsonalizatuak izango dira, bezero taldearen beharren arabera. Hala ere, ekintza guztiek irisgarritasun baldintzak betetzen dituztela bermatzen dugu.

Gune ezberdinetan egingo ditugun egonaldiak guztiz antolatuta egongo dira, alojamendua, otorduak eta kultur ekintzak barne. Bezeroek ere denbora libreza izango dute elkar ezagutzeko eta norberak erabakitzen duena egin ahal izateko. Tokian tokiko herritarrekin topaketak antolatuko ditugu, ez bait dago modu hobeagorik kultura eta ohiturak lehenengo pertsonan entzun eta ikustea baino.

Gure bidaiari diseinu pertsonala izango dute, hau da, gure tour propioak egingo ditugu, bezeroak eroso, pozik, ase eta integratuta sentitu daitezzen. Gure logotipoak bereziki, inklusibitatea nabarmendu nahi du, pertsona bakoitza norberaren izaera aldatu gabe, esperientzia hau ahaztezina izateko.



